

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****KULTURA, TURISMO, GAZTERIA  
ETA KIROL DEPARTAMENTUA**

*04-022/2018 Foru Agindua, abuztuaren 20koa, proiektu solidarioetako parte hartzaileen bidaiak finantzatzeko diru laguntza poltsen 2018ko deialdia ebazten duena.*

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

2018ko apirilaren 24an Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren bitartez onetsi ziren Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak kudeatzen dituen bekak eta laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta bakoitzaren oinarri espezifikoak –guztira hamar beka eta laguntza modalitate–, aipatutako erabakiaren eranskinetan jasotzen direnak. Erabaki hori 2018ko maiatzaren 11ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (90 zk.) argitaratu zen.

Aipatutako laguntzen artean proiektu solidarioetako parte hartzaileen bidaiak finantzatzeko diru laguntza poltsak daude, eta haien emakida araututa dago erabaki horrekin batera doan 8. eranskinean jasotako oinarrietan.

Proiektu solidarioetako parte hartzaileen bidaiak finantzatzeko diru laguntza poltsak emateko 2018ko ekitaldiko deialdia 2018ko maiatzaren 14ko 04/009/2018 Foru Aginduaren bidez onetsi zen, eta maiatzaren 23ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen (98 zk.). Aipatutako laguntza horientzako ekitaldi honetan baimendutako gastu osoa hogeita mila (20.000,00) eurokoa da, aurrekontuko 1 0240.400.480.00.01 2018 partidaren kargura.

Laguntza horiek arautzen dituzten oinarri orokorreko 7.2 puntuan xedatzen denez, eskaerak laguntzen jarduera arloko zerbitzuko teknikariek aztertuko dituzte, eta balorazio txostena egingo dute. Txosten hori igorriko zaio eratu den ebaluazio batzordeari –batzordearen osiera 5. oinarri espezifikoan zehaztuta dago–, ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, guztira bost eskaera jaso ziren, eta guzti horiek izapidetzea onartu zen.

Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aurkeztu diren eskaerak aztertu ondoren, eskaeren xedea eta laguntzak emateko eta kuantifikatzeko irizpideen arteko egokitzapena azaltzen duen txostena egin dute.

Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoek prestatutako txosten hori lehen aipatutako ebaluazio batzordearen irizpenera jarri da. Batzordeak, 2018ko uztailaren 18ko bileran, bere egin du adierazitako txostena. Ondoren, beka horiek emateko prozeduraren ebazpen proposamena igorri dio Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari.

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA****DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO,  
JUVENTUD Y DEPORTES**

*Orden Foral 04-022/2018, de 20 de agosto, por la que se resuelve la convocatoria 2018 de las bolsas de ayuda para la financiación de viajes de participantes en proyectos solidarios.*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 24 de abril de 2018, se aprobaron las bases reguladoras generales para la concesión de las becas y ayudas gestionadas por el Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes, y las bases específicas correspondientes a cada una de ellas –un total de diez modalidades de becas y ayudas– recogidas como anexos al citado acuerdo. Este Acuerdo fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 90, de 11 de mayo de 2018.

Entre dichas ayudas se encuentran las bolsas de ayuda para la financiación de viajes de participantes en proyectos solidarios, cuya concesión regulan las bases recogidas en el Anexo 8 de los que acompañan al mencionado acuerdo.

La convocatoria correspondiente al ejercicio 2018 para la concesión de bolsas de ayuda para la financiación de viajes de participantes en proyectos solidarios, fue aprobada por Orden Foral 04/009/2018, de 14 de mayo, y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 98, de 23 de mayo. El importe total del gasto autorizado para dichas ayudas en el presente ejercicio, asciende a veinte mil (20.000,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria 1 0240.400.480.00.01 2018.

La base general 7.<sup>ª</sup>2 reguladora de estas ayudas establece que las solicitudes correspondientes serán analizadas por el personal técnico del servicio correspondiente al área de actuación, quien elaborará un informe de valoración que será sometido a la comisión evaluadora que se constituya, –cuya composición viene determinada en la base específica 5.<sup>ª</sup>– la cual, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y la elevará al órgano competente para su aprobación.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se recibieron un total de cinco solicitudes, habiendo sido todas ellas admitidas a trámite.

Una vez analizadas por el personal técnico de la Dirección General de Cooperación para el Desarrollo las solicitudes presentadas, dicho servicio técnico ha emitido un informe en el que contrasta el objeto de las solicitudes con los criterios de concesión y cuantificación de estas ayudas.

El informe elaborado por los servicios técnicos de la Dirección General de Cooperación para el Desarrollo ha sido sometido a la Comisión evaluadora a la que se ha hecho mención anteriormente y, reunida la Comisión el día 18 de julio de 2018, haciendo suyo el citado informe, ha elevado propuesta de resolución del procedimiento de concesión de estas becas a este diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.

Bestalde, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearenak, 45.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da diru laguntzei publikitate emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoa.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Ematea beheko taulan zerrendatzen diren pertsonen proiektu solidarioetako parte hartzaileen bidaiak finantzatzeko diru laguntza poltsak, aipatutako gaiaren arloan laguntzak emateko 2018. urteko deialdiaren barruan.

Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes,

RESUELVE

*Primero.* Conceder a las personas que se relacionan en el cuadro siguiente, las bolsas de ayuda que en cada caso se señalan para la financiación de viajes de participantes en proyectos solidarios, dentro de la convocatoria 2018 para la concesión de ayudas en dicha materia.

| Expediente zk.<br>Nº expediente | Onuraduna<br>Persona beneficiaria | Proiektua<br>Proyecto  | Lortutako puntuazio<br>osoan 20 punturen<br>gainean<br>Puntuación total<br>obtenida s/ 20 puntos | Emandako beka<br>(euro)<br>Beca concedida<br>(euros) |
|---------------------------------|-----------------------------------|--|--|--|
| 2018-BEK1-000001-01             | Blanco Martinez, Ana              | Laguntza ematea Auserd Wilayako osasun egiturari<br>Apoyo a la estructura sanitaria de la Wilaya de Auserd | 20   | 1.560,00   |
| 2018-BEK1-000002-01             | Irizar Ocina, Myriam              | Blue Sky school (Tanzania)   | 15   | 1.293,72   |
| 2018-BEK1-000003-01             | Irazola Iturrioz, Jaione          | Corporación de Desarrollo Integral de la Familia (Codeinfa) Txile / Chile                                  | 15   | 1.680,60   |
| 2018-BEK1-000004-01             | Jimenez Gonzalez, Rocio           | San Joan Bautista de la Salle (Argentina)  | 20   | 1.340,00   |
| 2018-BEK1-000005-01             | Gonzalez Gonzalez, Marta          | Corporación de Desarrollo Integral de la Familia (Codeinfa) Txile / Chile                                  | 15   | 1.680,60   |

*Bigarren.* Xedatzea dagokion gastua –guztira zazpi mila bostehun eta berrogeita hamalau euro eta laurogeita hamabi zentimo (7.554,92)– A 3607 2018 kontabilitate erreferentziaren kargura.

*Hirugarren.* Diruz lagundutako jarduera amaitu ondoren diru laguntza poltsaren ordainketa egingo da, oinarri orokorren 11. puntuan xedatutako baldintzen arabera jarduera hori gauzatu dela egiaztatu ondoren. Egiaztagiri horiek 2018ko abuztuaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira.

*Laugarren.* Baja ematea kontabilitateko A 3607 2018 erreferentziatik baimendutako hamabi mila laurogeita eta berrogeita bost euro eta zortzi zentimoko (12.445,08) gastuari.

*Bosgarren.* Agintzea foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen ditu administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren bihamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren bihamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebaz-

*Segundo.* Disponer el gasto correspondiente –por importe total de siete mil quinientos cincuenta y cuatro euros con noventa y dos céntimos (7.554,92)– con cargo a la referencia contable A 3607 2018.

*Tercero.* El abono de la bolsa de ayuda se efectuará a la finalización de la actividad subvencionada, tras su justificación en los términos previstos en la base general 11.ª; justificación que deberá presentarse antes del 1 de diciembre de 2018.

*Cuarto.* Dar de baja el gasto autorizado por importe de doce mil cuatrocientos cuarenta y cinco euros con ocho céntimos (12.445,08), de la referencia contable A 3607 2018.

*Quinto.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto

pena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2018ko abuztuaren 20a.—Ana Urkola Aranburu,  
idazkari teknikoa. (5877)

expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 20 de agosto de 2018.—La secretaria  
técnica, Ana Urkola Aranburu. (5877)